

ARRASATE / Biblioteka Eguna: ipuin saioak gaur Kulturaten, 19:00etan hasita

Gaur da Biblioteka Eguna. Estatuko hainbat herri eta liburutegitan ospatzen den jaia da, Amigos del Libro elkartek antolatuta. Aurten lehen aldiz, Arrasateko udal bibliotekak ere zenbait ekintza antolatu ditu.

Ipuin saioak antolatu dituzte: astelehenean Kontu Kantoia saioa egin zuten Santa Marinan, umeendako.

Atzo, La Tartana Teatro taldearen eskutik, El Guardian de los cuentos saioa egin zuten Kulturateko areto nagusian, 6 urtetik gorakoendako. Egitarauarekin amaitzeko, gaur bi saio egongo dira helduendako, Kulturateko areto nagusian (19:00): Boni Ofogo kontalari afrikarra - gazteleraz- eta Koldo Amestoy -euskaraz-.

Literatura solasaldiak, gertu

Bestalde, hastear dira literatura solasaldiak. Euskarazko lehen saioa urriaren 30ean izango da eta Brigit Vanderbekerentzako Muskuiluak afaltzeko liburuaren gainean egingo dute berba. Gaztelerazko saioek, berriz, antzerkia izango dute ardatz; hilaren 29an izango da lehen saioa, William Shakespeare-n La Tempestad obraren gainean.